

# NORANTZA

# IRUNE BAÑALES

EITBko INTERNET ZERBITZUKO ARDURADUNA

## «Web-gune berriak aukera zabalagoa eskaintzen du»

Euskal Irrati Telebistaren XVIII. urte-mugarekin batera, EITBk web-gune berria estreinatu zuen. Programazioan soilik oinarritzen zen eskaintzari berrikuntzak gehituz, orrialde osatuagoa eskaintzea lortu du.

rauen eskaintzaren aldetik, aukera askoz ere zabalagoa eskaintzen da web-gune berrian, beti ere, Euskal Herriari dagozkion berriak nabarmenduz. Dena den, oraindik ere gauzak aldatu eta berritu behar dira ez dugu zalantzarik.

**Zeintzuk dira orrialdeak eskaintzen dituen eduki nagusiak?**  
Web-gunean hagen sortzen ditugun informazioak eskuratzeko aukera eskaintzen da. Orrialdearen sarreran nabigazioarako menua, inkesta eta "Euskadi munduan" tartea aurkitzen dira. Azken honetan, Amerikako euskaldunen nondik norakoko gerturatuak dira, mundu osoan barreiatuak dauden euskaldunen-tzat lokarri

izateko xedea duelarik. "Webcam" deritzen tarteen, berri, laster Euskal Herriko hiriburuakotako irudiak eskainiko dira, eguraldiaren berri jakiteko aukera ere izango delarik. Bestalde, Euskadi Irratia, Radio Euskadi eta Euskadi Gaztea irratia entzun eta ETB Sat ikusteko aukera dago. Horretaz gain, eguraldia, sukaldaritza, kirolak eta beste hainbat gauza daude aukerara. Egia esan, orrialdeak dituen edukia hitzez azaltzea zaila da eta egokiena orrialdera bertara joatea da.

**Zer ekartzen du Euskal Herriari orrialde honek?**

Gaur egun benetan zer ekartzen dion ez dakit. Niri zer ekartzea gustatuko litzaidakeen galdutako bazenit, argi erantzungo nuke orrialde hau Euskal Herriarentzat erreferentzia izatea gustatuko litzaidakeela, bertan, gure herriarekin zerikusia duten gaiak erakutsiko dituen erreferentzia hain zuzen ere. Bestalde, interaktiboagoa den tartea horretan jendearen gustuak zein diren ikusiz joan beharko nukeela pentsatzen dut. Euskal Herriki kanpo bizi direnei ere hemen gertatzen denari buruzko informazioa jasotzeko aukera eman.

**Web-gunean egindako berrikuntzek, gainera, Buber saria eskuratzeko bidea eman dizute. Zer esan nahi du hori jasotzeko?**

Askotan hainbat lan egiten da eta ez dago benetan ondo dagoen, zerbitzitarako balio duen edota jendearen gustukoa den jakiterik. Hori dela eta, Buber saria eskuratzeko, gure ustez, egindako lanaren errekonozimendua izan da nolabait eta oso pozik gaude.

**Zertan oinarritzen dira, Iruña, berrikuntza horiek?**

Esan bezala, aurrekoa programazioan oinarritzen zen. Hori dela eta, berrikuntzek orrialdea osatuago eskaintzeko aukera eman digute. Itxuraz gain, eduki aldetik, eta be-

### Amaia Mundiñano

Iruña Bañales Euskal Irrati Telebistako Internet Zerbitzuko arduraduna da eta web-gune berriari buruzko xehetasunak eman dizkigu solasaldi honetan. Gainera, web orriak uztailean jasotako Buber sariarekin pozik agertu da eta jendeak egindako lanari emandako onarpena dela adierazi du.

**Noiz sartu zen lehenengoz EITB Interneten munduan?**

Euskal Irrati Telebistaren web orria lehenengoz 1997an hasi zen martxan. Garai horretan gainontzeko komunikabideak eta Interneten munduan sartzen hasi ziren eta EITB ere horretan murgiltzen hasi zen pixkanaka. Azken finean, Internet komunikaziorako beste bide bat da eta, beronen bitartez, Euskal Herriari bizi den orori zein Euskal Herriki kanpo bizi diren euskaldunei bertako berriak izateko aukera eskaintzea lortu nahi genuen. Bestalde, hasierako web orrian EITBren programazioa soilik eskaintzen zen eta izakio maiztean, hainbat berrikuntza egin ondoren, gure orriak bigarren estreinaldi bat izan zuela esan genezake.



### Zirtoka



Txillardegui

### Katabua aiputan

Datorren hilaren 24an hauteskundeak burutuko dira "Jugoslavia" deritzen Estatu Federalearen azkeneko hondakin horretan. Milosevic-en Serbian, alegia.

Montenegro Errepublikak kidean bertan ere, nik neuk bederen ez dut zalantza izpirik ikusten emaitzaz: gehiengo Milosevic-ek lortuko du. Bestela hauteskundeak ere. Eta "Ordenu Internazional" famatu horrek amaitutzat emango du arazoa. Denek agurtuko dute berriro Belgrado-ko fazitaren sasi-gobernu.

Garaipena nola lortuko duen? Abuztuaren 10-ko "Guardian" en agertzen den marraskiak garbi adierazten du: bertan Milosevic agertzen baita, harakin jakteraz, eta odola darion ahotz bat eskutuan.

Mundu guztiak daki Milosevic zer den, eta nolako galbario ikaragarria ekarri duen Balkanetara: gerta odoltsuak Bosnia eta Kosovoan, sarraskiak han eta hemen, bonbaketa itsuak, deportazioak, oposizioako leader politikoek hiletatua sistematikoa, prentsa eta telebistaren kontrol lotsagabea, eta abar luze bat.

Kosovo-koa genozidio huts-hutsa izan da. Kosovarrak albaniarrak dira alde guztiatetik, eta ez serbiarrak; eta Independentzia nahi dute. Baina «goikoan» erantzuna ez da luzatu: «Independentzia Kosovare? Inola ere ez. Autonomia bakarrik, eta Serbiaren barria». Alegia ofizialki ere «gerta-kriminala» den Milosevic bera, agintari onartuz.

Soluzioa? «Milosevic carried away in a coffin». Hoagland-en hitzez.

Esaldi latza. Egia. Baina ongi funtsatua.

Eta, nolanchi ere, latzagoa baldandaren beren egoera.

## AITZINDARIAK

### MORK LEGASA 1918, 1997



**EUSKAL HERRIAREN IZPIRITU HEZKAITZIK BI SOKA UKAN DITUL, ETA BIAK ELKARRI EZARTIK:**

-SANTA KRUZALEAK: JAINKOA, ABERRIA eta FORUAK, IRAGANARI BURUZ BURURAKO HER-DOI DUAN.

-ADAR BELTZ EKOLAZINAK, ESTATUEN KONTRAZ ALDARRIKO: KONTRABANDOA, ANARKIA, SEPARATISMOA !!

AGIRRE LEHENEGOKARIK LO EGIN BEHAR GANBARAN IDATZI ZUEN GERTUAK SARAKO BERE ETXERAN: JAUN GABE ETA LEGERIK EZ!

**IZATEA, edo ez IZATEA ez da Gehiago KOKKA, BAINA ez IZATEAREN BARRNEAN HAUTATZEA DUKEGU AFERA:**

ZONBI: eguneroko frustrazione okortegakia onartzea; huliak bizitzea.

INGUMA: Boterearen bistatik gor-detzea, haren kalpatzeko.

**MIERDA = ESTATUA = JAINKOA = ZANPAKETA**

**GALTZALE GARA, BAI, BADAQUIA. ORdea HE-MEN GARA, ez IZATEAZ KONDENATUDUTEN HERRI HONETAN; SISTEMARI HUTSUNE ES-TRATEGIKOZ ZILATZEN ARI...**

**SEPARATISTAK GARA, gure BAITATIK ere SEPARATZEN BAIKARA BERTZE IZAKI BATZURENGANDU JOATEKO, MUGA HITS OROYEN GANINETIK...**

**EZ BALITZ LANIK, EZ LITZATEKE LANGABEZIARIK... HORRETAZ: FUERA LANA! BIRA LIBERTATEA!**

**DEUSEREAREN GEYLARI GAITUZU, KORTSARI KONDENATUEN INGUMAK HERRI INGUMA BATEAN GAINDI AIDERRAI. HISTORIAREN PARETAK TRABESKATZEN DITUGU, ANEKDOTA BAITAUKU. OI DOLU BANDERA, ZENBAT ILARGI BELTZATAN HOTS EGIN IZAN DAUTZU!**

El separatismo se cayó al agua y con él el ZAZPIK-BAT ha sido echado al mar. Hoy asistimos al espectáculo de ver a los discípulos de ARANA colaborar con los peores de sus enemigos.